

Instituto de Seguridad y Salud
Pública y Laboral
ICSL
CSIC-Navarra

LANEKO ARRISKUEN
PREBENTZIOKO ORDEZKARIEN
PRESTAKUNTZARAKO GIDALIBURUA



LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOKO ORDEZKARIEN PRESTAKUNTZARAKO GIDALIBURUA

1	PLANAREN AURKEZPENA ETA JUSTIFIKAZIOA	3
2	HELBURUAK	3
2.1	OROKORRA	3
2.2	ESPEZIFIKOAK	3
3	ESKUMENAK ETA AHALMENAK	4
3.1	ESKUMENAK	4
3.2	AHALMENAK	4
4	PRESTAKUNTZA PROGRAMA	5
5	EDUKIAK	5
5.1	ARAUDIARI BURUZKOAK	5
5.2	ALDERDI TEKNIKOA	6
5.2.1	Prebentzioaren kudeaketa	6
5.2.2	Segurtasuna	7
5.2.3	Higienea	8
5.2.4	Ergonomia	9
5.2.5	Psikosoziologia	9
5.2.6	Prebentzioa indarkeriaren arloan. Protokoloak	11
5.2.7	Laneko osasunaren zaintza	11
5.2.8	Osasunerako kalteak	12
6	MODALITATEA	12
7	METODOLOGIA	13
8	EBALUAZIOA ETA ZIURTAGIRIAK	14
8.1	Prestakuntza jardueraren ebaluazioa	14
8.2	Ikasleen ebaluazioa	14

1 PLANAREN AURKEZPENA ETA JUSTIFIKAZIOA

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak (NOPLOI), **Nafarroako Lan Osasunaren Kontseiluan** parte hartzen duten sindikatuekin koordinaturik (UGT, CCOO, ELA eta LAB) eta Nafarroako Enpresarien Konfederazioa (NEK) eta Nafarroako Gizarte Ekonomiako Enpresen Elkarteak (ANEL) jakitun zirela, **Laneko arriskuen prebentzioko ordezkariendako prestakuntza plan** bat diseinatu zuen. Plan hori **2017**ko ekainean jarri zen abian. Urte hauetan zehar, plan hori aldatzen joan da, laneko arriskuen prebentzioko ordezkariaren figura sindikalaren eskumen eta ahalmenetara egokitzearen.

Prestakuntza plan horretan bi zati bereizi ziren:

- **Laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia:** eskubideak eta betebeharrak, laneko arriskuen prebentzioan parte hartzen duten entitateak, parte hartzea, plangintza. Sindikatuetakoa langileek ematen dute prestakuntzaren zati hori.
- **Laneko arriskuen prebentzioko diziplinak eta osasun alderdiak:** (Segurtasuna, Higienea, Ergonomia, Psikosoziologia, Prebentzioaren kudeaketa eta Prebentzioa genero indarkeriaren aurrean; Osasuna zaintzea eta Osasunerako kalteak). NOPLOIko Lan Osasunaren Zerbitzuko langileek eta Nafarroako Berdintasunerako Institutuko (NABI) langileek ematen dute zati hori.

2 HELBURUAK

2.1 OROKORRA

Laneko arriskuen prebentzioko ordezkari baten eskumenak erabiltzen jakitea.

2.2 ESPEZIFIKOAK

- Langileek lanean dituzten osasun arrisku eta arazoak identifikatzea eta haietan esku hartzea.
- Prebentzioko ordezkari gisa enpresetan egiten duten jardura errazteko tresnak ezagutzea.
- Laneko osasunaren arloko edukien oinarritzko ezagutzak barneratzea, beren funtzioei dagokienez.
- Laneko segurtasuna eta osasuna sustatzeko gai izatea.
- Beharrezkoa den informazioaz jabetzea eta enpresari helaraztea.
- Erakundearen eta elkartearen zeregina bereiztea.
- Jakitea non eta nori egin kontsulta.
- Arduradunak gaitzea, langileak prebentzioaren arloan sentibiliza ditzaten.

3 ESKUMENAK ETA AHALMENAK

Prestakuntzako edukien helburua da beharrezko ezagutzak eskaintzea ordezkariari, prebentzioko araudiak Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 36. artikuluan ezarritako eskumen eta ahalmenak eskura ditzaten.

3.1 ESKUMENAK

- Enpresako zuzendaritzarekin elkarlanean aritzea prebentzio ekintza hobetzeko.
- Langileen lankidetzat bultzatu eta sustatzea, laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia bete dadin.
- Enpresariari aholku ematea, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 33. artikuluan aipatzen diren erabakiak gauzatu aurretik.
- Zaindu eta kontrolatzea ea laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia betetzen den.

3.2 AHALMENAK

- Teknikariari laguntzea laneko inguruneari buruzko prebentzio ebaluazioak egiten, bai eta Laneko eta Gizarte Segurantzako ikuskatzaileei ere, horiek laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia betetzen dela egiaztatzeko lantokietara egiten dituzten bisita eta egiaztapenetan.
- Lan baldintzei buruzko informazioa eta dokumentazioa eskuragarri izatea (ezarrita dauden mugekin) beren eginkizunetarako beharrezkoa denean. Informazioa aipatutako mugei lotua bazaie, soilik ematen ahalko zaie isilpekotasuna gordeko dela bermatzen bada.
- Langileen osasunean eragindako kalteei buruzko informazioa jasotzea enpresariengandik, horiek halakoen berri izan eta gero.
- Enpresariengandik honako informazio hau jasoko dute: enpresan babes eta prebentzio jarduerak arduratzen diren pertsona edo organoek, bai eta langileen segurtasunerako eta osasunerako eskumena duten erakundeek ere, enpresariari emandako informazioa. Osasun zainketaren arloan, osasun azterketen ondorioen berri emanen zaie; hau da, langilea lanpostuan aritzeko gai den, edo babes eta prebentzio neurriak gehitu edo hobetu behar diren.
- Lantokiak bisitatzea, lan baldintzen egoeraren zaintza eta kontrol lana egiteko.
- Enpresariari eskatzea prebentzioko neurriak har ditzala, bai eta langileen segurtasuna eta babesa hobetzeko neurriak ere.
- Arrisku larria eta berehalakoa dagoenean, jarduera geldiarazteko erabakia hartzeko proposamena egitea langileen ordezkariari.

4 PRESTAKUNTZA PROGRAMA

SAIOAK	EDUKIAK	MODALITATEA	NORK EMATEN DUEN	IRAUPENA
1.a	OINARRIZKO ARAUDIA	AURREZ AURREKOA	Erakunde sindikalak	6 ordu
2.a				6 ordu
3.a	PREBENTZIOAREN KUDEAKETA	AURREZ AURREKOA	NOPLOIko langileak	3 ordu
	SEGURTASUNA	AURREZ AURREKOA	NOPLOIko langileak	3 ordu
4.a	HIGIENEA	AURREZ AURREKOA	NOPLOIko langileak	3 ordu
	ERGONOMIA	AURREZ AURREKOA	NOPLOIko langileak	3 ordu
5.a	PSIKOSOZIOLOGIA	AURREZ AURREKOA	NOPLOIko langileak	3 ordu
	PREBENTZIOA INDARKERIAREN ARLOAN. PROTOKOLOAK	AURREZ AURREKOA	NABIko langileak	3 ordu
6.a	OSASUNAREN ZAINZA	AURREZ AURREKOA	NOPLOIko langileak	2 ordu eta 15 minutu
	OSASUNERAKO KALTEAK	AURREZ AURREKOA	NOPLOIko langileak	2 ordu eta 15 minutu
	ONDORIOAK ETA BUKAERA	AURREZ AURREKOA	Erakunde sindikalak	1 ordu eta 30 minutu
GUZTIRA				36 ordu

5 EDUKIAK

5.1 ARAUDIARI BURUZKOAK

- Lana eta osasuna.
- Lan istripuak. Gaixotasun profesionalak.
- Lanerako ezintasunak.
- Langileen eskubideak. Enpresariaren betebeharrak.

- Prebentzioko ordezkariak. Segurtasun eta Osasuneko Batzordea.
- Prebentzio plana. Arriskuen ebaluazioa. Prebentzio plangintza.
- Prebentzio zerbitzuak.
- Ugazaben mutualitateak.
- Lan ikuskaritza, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala, NOPLOI.
- Enpresa jardueren koordinazioa.

5.2 ALDERDI TEKNIKOA

5.2.1 *Prebentzioaren kudeaketa*

- **Aurkezpena eta antolaketa**
- **Zer den Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua (NOPLOI)**
 - Laneko osasuna artatzeko Nafarroako Gobernuaren unitate tekniko-sanitario nuklearra da.
 - Egitura orokorra.
 - Funtzio nagusiak: zerbitzu teknikoa, osasun zerbitzua eta laneko arriskuen prebentziorako zerbitzua (LAPZ).
- **Laneko Arriskuen Prebentzioko (LAP) prestakuntza mailak**
- **Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legea - LAPL eta beste batzuk**
 - Noiz sortu zen eta zergatik.
 - Helburu orokorrak.
 - Laneko segurtasunarekin eta osasunarekin lotutako oinarrizko kontzeptuak.
 - Nafarroako estatistika konparatuak.
 - Laneko arriskuen prebentzioaren arloko oinarrizko arau esparrua.
 - Erantzukizunak/zehapenak.
 - Integrazioaren oinarriak. Prebentzio kultura.
- **Prebentziorako antolaketa eta beste batzuk**
 - Prebentzio modalitateak.
 - Prebentzioko ordezkarien ahalmenak eta eskubideak eta Segurtasun eta Osasuneko Batzordearen funtzioak gogoraraztea.
 - Prebentzioa kudeatzeko oinarrizko prozesuak.
 - Prebentzio arloan parte hartzea, eta horrek prebentzio neurrien eraginkortasunarekin duen harremana.
 - Prestakuntza, informazioa eta gaikuntza.
 - Osasunari eragindako kalteen ikerketa.
 - Enpresa Jardueren Koordinazioa eta Aldi Baterako Laneko Enpresak (ABLE).
 - Lan baldintzen kontrola.
 - Prebentziorako prozedurak eta baliabideak.
 - Norbera Babesteko Ekipamenduen (NBE) kudeaketa.
 - Prebentzio jardueraren printzipioak ([Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legearen 15. art.](#)).

- Arriskuen kudeaketa eta dokumentazioa: arriskuen ebaluazioa, plangintza, prebentzio plana, larrialdi plana, prestakuntza plana, osasuna zaintzea... LAPEko ordezkari gisa lanean hasteko analisi praktikoa.
- **Prebentzio espezialitateak eta horien hastapenak**

5.2.2 Segurtasuna

- **Sarrera**
 - Istripuak eta gorabeherak. Kasu praktikoa.
 - Bird-en piramideak eta prebentzioaren diamantea.
- **Lantokiak - [486/1997 Errege Dekretua](#) eta haren [gidaliburu teknikoak](#):**
 - Definizioa eta xedea.
 - Baldintza orokorrak (I. eranskina).
 - Ordena eta garbitasuna.
 - Argiztapena eta baldintza termohigrometrikokoak. Sarrera.
 - Higiene zerbitzuak, atsedenerako lokalak eta lehen sorospenerako lokalak.
 - Espazio konfinatuak. Kontzeptua, adibideak eta jardunbideak.
 - Barne zirkulazioa eta biltegiatzea.
 - Industria instalazioak. Oinarritzko kudeaketa.
- **Seinaleak - [485/1997 Errege Dekretua](#) eta haren [gidaliburu teknikoak](#):**
 - Definizioa eta xedea.
 - Seinale motak.
- **Arrisku elektrikoa - [614/2001 Errege Dekretua](#) eta haren [gidaliburu teknikoak](#):**
 - Definizioa eta xedea.
 - Teknikak eta prozedurak.
- **Altuerako lanak**
 - Definizioa eta xedea.
 - Estalkiak, laneko ekipamenduak eta esku eskailerak.
 - Prozedura, lan baimenak eta prebentzio baliabideak.
- **Atmosfera leherkorrak - [681/2003 Errege Dekretua](#) eta haren [gidaliburu teknikoak](#):**
 - Definizioa eta xedea.
 - Agente kimikoak eta leherketen aurkako babeserako dokumentua.
 - Prozedura, lan baimenak eta prebentzio baliabideak.
- **Laneko ekipamenduak - [1215/1997 Errege Dekretua](#) eta haren [gidaliburu teknikoak](#):**
 - Definizioa eta xedea.
 - Laneko ekipamenduak eskuratzea, CE marka, ekipamenduak egokitzea, babesgarriak, elementu mugikorrak eta babeserako gailuak.
- **Bide segurtasuna**
 - Oinarritzko kontzeptuak.
- **Kasu praktikoa, laburpena eta ondorioak**

5.2.3 Higienea

○ **Sarrera**

- Arrisku faktoreak.
- Jarduteko prozedura.
- Prebentzio eta babes neurriak.

○ **Kutsatzaile fisikoak**

- Zarata
 - [286/2006 Errege Dekretua](#) langileen osasuna eta segurtasuna babesten dituen zaratarekin lotutako arriskuetatik.
 - 4. art.: zarata saihesteko edo murrizteko xedapenak.
 - 5. art.: mugako balioak, zerbait egin beharra dakartenak.
 - 6. art.: arriskuen ebaluazioa (neurketa bidez).
- Bibrazio mekanikoak
 - [1311/2005 Errege Dekretua](#), langileen osasuna eta segurtasuna babesten dituen bibrazio mekanikoen esposizioarekin lotutako arriskuetatik.
 - 2. art.: definizioak.
 - 3. art.: esposizioaren balioak.
 - 4. art.: arriskuak zehaztea eta ebaluatzea.
 - Neurri teknikoak eta/edo antolakuntzakoak.
- Baldintza termohigrometrikokoak (deserosotasuna eta estres termikoa)
 - [486/1997 Errege Dekretua](#), lantokietarako segurtasun eta osasuneko gutxieneko xedapenak ezartzen dituen III. eranskina: Ingurune baldintzak.
 - Estresa, beroagatik: WBGT metodoa.
 - Estresa, hotzagatik: IREQ metodoa TLV metodoa.
- Erradiazioak eta eremu elektromagnetikoak
 - [486/1997 Errege Dekretua](#), IV. eranskina: lantokietako argiztapena.
 - [486/2010 Errege Dekretua](#), langileen osasuna eta segurtasuna babesten dituen erradiazio optiko artifizialekiko esposizioarekin lotutako arriskuetatik.
 - 2. art.: definizioak.
 - 3. art.: aplikazio eremua.
 - 4. art.: zarata saihesteko edo murrizteko xedapenak.
 - 5. art.: esposizioaren gehieneko balioak.
 - 6. art.: arriskuen ebaluazioa.
 - [299/2016 Errege Dekretua](#), langileen osasuna eta segurtasuna babesten dituen eremu elektromagnetikoen esposizioarekin lotutako arriskuetatik.
 - [1029/2022 Errege Dekretua](#), erradiazio ionizatzaileen aurkako osasun babesari buruzkoa.

○ **Kutsatzaile kimikoak**

- Produktu kimikoak identifikatzea: etiketak eta segurtasun datuen fitxa.
- [374/2001 Errege Dekretua](#), langileen osasuna eta segurtasuna babesten dituen eragile kimikoekin lotutako arriskuetatik.
- 3. art.: arriskuen ebaluazioa. Ebaluazio metodoak.
- 4. art.: arriskuak prebenitzeko printzipio orokorrak.

- 5. art.: prebentziorako eta babeserako berariazko neurriak.
- [665/1997 Errege Dekretua](#), langileak babesten dituen agente kantzerigeno, mutageno edo erreprotoxikoekiko esposizioari lotutako arriskuetatik.
- [396/2006 Errege Dekretua](#), amiantoaren eraginpean egoteko arriskua duten lanei aplikatzeko gutxienezko segurtasun eta osasun xedapenak ezartzen dituenak.
- **Kutsatzaile biologikoak**
 - [664/1997 Errege Dekretua](#), langileak babesten dituen agente kantzerigeno edo mutagenoekiko esposizioari lotutako arriskuetatik.
 - 4. art.: arriskuak identifikatu eta ebaluatzea.
 - 5. eta 6. art.: ordeztzea eta arriskuak murriztea.
 - 7. art.: higie-ne neurriak.
 - I. ERANSKINA: jardueren zerrenda.
 - II. ERANSKINA: agente biologikoen sailkapena.
 - IV. ERANSKINA: eusteko neurriak eta mailak.
 - Arreta neurri estandarrek eta, hala badagokio, agente infekziosoaren transmisio bidearen arabera (kontaktua, tantak, airearen bidez) ezarritako neurriak.

5.2.4 Ergonomia

- **Hezur eta giharretako nahasmenduak:** kontzeptua
- **Arrisku ergonomikoko faktoreen eraginpean egotearen eta hezur eta giharretako nahasmenduak izatearen arteko harremanaren ebidentziak**
- **Arrisku ergonomikoko faktoreen eraginpean egotearen eta hezur eta giharretako kaltearen datuak**
 - [Nafarroako lan baldintzei eta osasunari buruzko III. inkesta.](#)
 - Laneko lesioen erregistroak.
 - [Programa zelataria.](#)
 - [Aldi baterako ezintasunaren datuak.](#)
- **Hezur eta giharretako nahasmenduen kudeaketa zikloa**
 - Arrisku ergonomikoak identifikatzea (irizpide arauemaileak).
 - Kargak eskuz goratu eta garraiatzea.
 - Zamak bultzatzea eta tiratzea.
 - Mugimendu errepikakorrek.
 - Jarrera eta mugimendu behartuak.
 - Ezabatzea.
 - Ebaluazioa: Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduaren (PZE) 5. artikulua.
- **Hartzen diren prebentzio neurriak. Neurri teknikoak, antolakuntzakoak eta prestakuntza eta informazio neurriak**
- **Hartutako neurrien eraginkortasuna egiaztatzea**
- **Langileek eta haien ordezkariak aktiboki parte hartzea**

5.2.5 Psikosoziologia

- **Faktore psikosozialak**

- Definizioa.
- **Arrisku psikosozialeko faktoreak**
 - Definizioa eta motak:
 - Lanaren edukia.
 - Laneko karga eta erritmoa (lan jarduna).
 - Laneko denbora. Deskonexio digitala.
 - Parte hartzea eta kontrola.
 - Rola betetzea.
 - Garapen profesionala.
 - Pertsonen arteko harremanak/gizarte laguntza.
 - Laneko ekipamenduak eta beste arrisku batzuekiko esposizioa.
- **Arrisku psikosozialak**
 - Definizioa.
 - Motak:
 - Estresa.
 - *Burn out* sindromea.
 - Nekea
 - Edozein motatako jazarpena eta/edo indarkeria (barnekoa zein kanpokoak).
 - Kalteak, ondorioak, efektuak.
- **Kasu praktikoak**
- **Faktore psikosozialen ebaluazio prozesua**
 - Ebaluaziorako erreferentziazko araudia eta dokumentazioa:
 - [Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legea \(31/1995 Legea\).](#)
 - [Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua \(39/1997 Errege Dekretua\).](#)
 - [450. POT \(prebentzioaren gaineko ohar teknikoak\).](#)
 - [702. POT \(prebentzioaren gaineko ohar teknikoak\).](#)
 - Zenbait orientabide, arrisku psikosozialeko faktoreak ebaluatzeko (Laneko Segurtasun eta Osasunaren Institutu Nazionala).
 - Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailatzaren (LGSi) jarduketa gidaliburuak, arrisku psikosozialei buruzkoak ([69/2009 Irizpide Teknikoa \(IT\)](#); [87/2011 IT](#) eta [104/2021 IT](#)).
 - Arrisku psikosozialen ebaluazioaren faseak
 - Arrisku faktoreak identifikatzea
 - Ikertzeko metodologia eta teknikak aukeratzea
 - Landa lana planifikatu eta gauzatzea
 - Emaizten analisia Txostena
 - Esku hartzeko programa bat prestatu eta abian jartzea
 - Hartutako neurrien kontrola eta jarraipena egitea
 - Prebentzio neurriak
 - Kasu praktikoak
 - Jardunbide egokiak arlo psikosozialean

5.2.6 Prebentzioa indarkeriaren arloan. Protokoloak

- **Arauen errepaso laburra, aipatutako araudia bereziki azpimarratuz**
- **Zigor arloko eta lan arloko jurisdikzioei buruzko azalpena**
- **Kontzeptu nagusiak: sexu indarkeria, sexu jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena**
- **Esku hartzeko zikloa: Prebentzioa, Arriskuen balorazioa, Prestakuntza**
- **Lanketa eta negoziazioa Protokoloaren kapitulu nagusiak**
 - Printzipioen eta konpromisoen adierazpena enpresetan.
 - Kausa babesgarrien definizioak.
 - Jarduteko prozedurak.
 - Protokoloa aktibatzea. Kautelazko neurriak. Salaketa. Ikerketa.
 - Neurri erreaktiboak identifikatzea. Diziiplina araubidea.
- **Jarduketa prozeduretako printzipioak**
 - Prebentzioa eta sentsibilizazioa.
 - Konfidentzialtasuna eta intimitatea.
 - Errugabetasun presuntzioa.
 - Errepresaliak debekatzea.
 - Prestasuna eta azkartasuna.
 - Laneko eskubideen eta babeserako eskubideen bermea.
- **Aurrez aurreko egoerak eta egoera digitalak**
- **Praktika. Protokoloen adibideak**
- **Araudia**
 - [C190](#), Lanaren Nazioarteko Erakundearen 206. gomendioa
 - [3/2007 Lege Organikoa](#), martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriari buruzkoa. 48. art.
 - [901/2020 Errege Dekretua](#), urriaren 13koa, berdintasun planak eta haien erregistroa arautzen dituen eta Lan-akordio kolektiboak erregistratzeari eta gordetzeari buruzko maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretua aldatzen duena. 7. eranskina.
 - [10/2022 Lege Organikoa](#), irailaren 6koa, Sexu Askatasunaren Berme Integralari buruzkoa. 12. art.

5.2.7 Laneko osasunaren zaintza

- Laneko osasunaren zaintzaren definizioa eta printzipio orokorrak. Bideoa.
- Osasun azterketa motak eta haien helburuak. Protokolo espezifikoak. Arriskuen ebaluazio on baten garrantzia.
- Osasun indibiduala eta kolektiboa zaintzea. Osasun azterketen emaitzak aztertzea. Prebentzio plangintzaren eraginkortasuna ebaluatzea.
- Prebentzio zerbitzuen jarduera sanitarioak.
- Bereziki sentikorrak diren langileak.
- Prebentzioko ordezkarien eta Segurtasun eta Osasuneko Batzordearen eskumenak.
- Lan istripuak eta laneko gaixotasunak.

- Zaintza Epidemiologikoaren Programa: Gertaera Zelatarien Sarea.
- Delt@, CEPROSS, PANOTRATSS erregistroak.

5.2.8 Osasunerako kalteak

- Gizarte Segurantzaren/Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionala. Langileen eskubideak. Subsidioak.
- Aldi baterako ezintasuna (ABE). Zer den, eta motak (bideoa)
- Eritasun arrunta eta lanez kanpoko istripua.
- Gaixotasun profesionala eta lan istripua.
- ABE edo bajaren iraupena eta haren arduradunak. ABE edo bajaren kudeaketan esku hartzen duten erakundeak, kontingentziaren arabera.
- Mutuak zer diren.
- Lanerako ezintasun iraunkorra edo baliabideezintasuna. Zer den, eta haren graduak
- Ezintasunak Baloratzeko Taldea zer den.
- Lesio iraunkorrak, ezintasuna eragiten ez dutenak.
- Amatasuna eta lana: babes neurriak, arriskuak ezabatzea...
- Haurdunaldiko arriskuaren ondoriozko prestazioa.

6 MODALITATEA

Urte hauetako prestakuntza aurrez aurrekoa izan da –bai sindikatuarekin egindako saioak bai saio teknikoak– eta horixe izan da programaren indarguneetarikoa bat, aukera eman duelako NOPLOko teknikariak prebentzioko ordezkariengana hurbiltzeko, kontsultak egin eta aholkuak eman ditzaten.

Parte hartu ahal izateko, izena eman behar da, prestakuntza planean parte hartzen duen sindikatuarekin baten bitartez (LAB, UGT, ELA, CCOO). Sindikatuak enpresendako justifikazio ohar bat emanen diete prebentzioko ordezkariari, prestakuntzara joateko erraztasunak eman ditzaten. Ildo horretan, [Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen](#) 37.2 artikulua jasotzen du enpresaburuaren betebeharra dela bitartekoak eta prestakuntza ematea prebentzioko ordezkariari.

“Beren eginkizunetarako premiazkoak diren prebentzio alorreko bitartekoak eta prestakuntza emanen dizkie enpresaburuak prebentzioko ordezkariari. Prestakuntza enpresaburuak emanen du, bere baliabideen bidez edo gaian adituak diren elkarte edo erakundeekin hitzarmena eginda; prestakuntza hori egokitu beharko da arriskuen bilakaeraren arabera eta agertzen ahal diren arrisku berrien arabera, eta, hala behar izanez gero, aldian-aldian errepikatu beharko da. Prestakuntzan erabilitako denbora lan denbora gisa hartuko da ondore guztietarako, eta horren kostua ez zaie ezarriko inola ere prebentziorako ordezkariari”.

Metalaren Sektoreko Industriaren, Teknologiaren eta Zerbitzuen Estatuko Hitzarmen Kolektiboaren eraginpeko jardueri atxikitako prebentzioko ordezkarien prestakuntza arautua dago hitzarmen horretan bertan. Prebentzioko ordezkariendako ikastaro espezifiko bat da, aurrez aurre egin beharrekoa.

7 METODOLOGIA

Saioetan askotariko metodologia erabiltzen da:

- Azalpen teknikak: aurkezpenen bidez azalduko dira kontzeptu teorikoak.
- Parte hartzeko jarduerak: kasu praktikoak aztertzea, problemak ebaztea, taldeka lan egitea, eztabaidak, *role playinga*.
- Ebaluazio teknikak: inkestak, galdeketak.
- Informazioa bilatzeko tresnak eskainiko dira, bai eta laneko arriskuen prebentzioaren arloan erreferenteak diren webguneak, ohar teknikoak, ekoizpen propioko bideoak, Laneko Segurtasun eta Osasunaren Institutu Nazionalarenak eta Laneko Segurtasun eta Osasunerako Europako Agentziarenak, etab.
- Baliabide propioak erabiliko dira:

		
<u>Laneko arriskuen kudeaketarako</u> <u>etengabeko zikloari</u> buruzko webgunea.	NOPLOiren <u>webgunean</u> prebentzioko ordezkari zuzendutako espazioa.	<u>Kontsultak egiteko postontzi</u> <u>bat</u> jarri da NOPLOiren webgunean
		
Osasunaren zaintza. <u>Bideoa</u>	<u>Baja arruntak eta jatorria lanbidean dutenak</u>	

8 EBALUAZIOA ETA ZIURTAGIRIAK

8.1 Prestakuntza jardueraren ebaluazioa

Ordezkariek balorazio galdetegi bati erantzunen diote, ikastaroa amaitutakoan.

8.2 Ikasleen ebaluazioa

Kontuan hartuko da ea parte hartzaileak prestakuntza saioetara joan diren; jarduera orduen % 80 egin beharko dira. Horretarako, saioetara zein etortzen den kontrolatuko da une desberdinetan.

Ikastaroaren ziurtagiriak prestakuntza amaitu ondoren bidaliko dira ikasleek emandako helbide elektronikoetara.

**NAFARROAKO OSASUN PUBLIKOAREN ETA LAN OSASUNAREN INSTITUTUA
(NOPLOI)**

Landabengo industrialdea, E eta F kaleak

31012 Iruña

Tel.: 848 42 34 40/ ssl.ispln@navarra.es

[NOPLOI](#) - lanekoarriskuaknavarroa.eus